

Mikroskopioa artearen sorleku

Nikon Small World 2021

Haritz baten hostoetako egitura mikroskopikoek irabazi dute aurtengo Nikon Small World argazki-lehiaketa. Hain zuzen, zuhaitzaren bizitza posible egiten duten hiru oinarrizko egitura ikusten dira: zuriz, trikomak, hostoari muturreko hotzetik eta intsektuetatik babesten laguntzen dioten egitura iletsuak; morez, estomak, gasak trukatzeko ireki eta ixten diren poroak; eta, urdinez, sustriatetik datorren ura hostoan zehar garraiatzen duten hodiak.

Jason Kirk ikertzailearena da argazkia. 20 urtetik gora daramatza mikroskopian lan egiten, eta, gaur egun, Bizi Mikroskopioa eta Irudi Optikoa ataleko zuzendaria da AEBko Baylor College of Medicine-n. Haritz-hostoen beheko aurpegia mikroskopiopean jarrita eman zituen pandemia-garaiko tarte libreak, eta argiztapen-zailtasun ugari gaingitu eta 200 irudi mikroskopiko uztartu ondoren lortu zuen, azkenean, argazki ikusgarri hau. Irudien teknologia eta sormen artistikoa bikain uztartu dituela adierazi du epaimahaiak.

Baina Kirk ez da mikroskopioa artearen sorleku duen zientzialari bakarra. Lehiaketan nabarmendu diren beste batzuk ere ekarri ditugu hurrengo orrietara. Gainerakoak Nikon Small World lehiaketaren webgunean ikus daitezke:

<https://www.nikonsmallworld.com/galleries/2021-photomicrography-competition>.

Haritz baten hostoetako trikomak eta estomak (x60).

Jason Kirk (Texas, AEB).






Akain baten burua. Odola zurrupatzeko erabiltzen duen egitura ikusten da (x10).

Tong Zhang eta Paul Stoodley
(Ohio, AEB).





Esnea jariatzen duen bularreko organoidea, laborategian sortua. Gorriz, esnea sortzen duten zelulak; urdinez, esne hori jariatzen laguntzen duten zelula mioepitelial uzkurrorak (x40).

Jakub Sumbal (Txekiar Errepublika).



Karlsbad Sprudelstein izeneko arroka sedimentarioa, aragonitozko zirkulu konzentrikoak tipula baten gisan haztean sortzen dena (x20).
Bernardo Cesare eta Markus Neumann (Italia).






Zizare oligoketo bat (*Chaetogaster sp.*),
ur-arkakusoez elikatzen ari dena
(*Chydorus sp.*) (x4).
Yen Fook Chew (Zeelanda Berria).

Ur-arkakuso bat (*Daphnia*), bere enbrioak eta parasito peritrikoak garraiatzen ari dena (x10).
Jan van IJken (Herbehereak).





Liztorra lo (*Crysis* sp.) (x5).
Thorben Danke (Alemania).



Sagu baten hestea,
zeharkako ebakiaz ikusia (x10).
Amy Engevik (Hegoaldeko Karolina, AEB).



Dinosaurio-hezur agatizatua (x5).
Norm Barker (Baltimore, AEB).

